

DAR-  
DAR

INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO  
HERRIAK EHUNTZEN

# KOKAPENA

Indarkeria matxista entzutean dardara antzeko batek zeharkatzen ditu gure gorputzak. Eta ez da gutxiagorako: azken urteotan, gure herrietan, indarkeria matxista kasuek ez dute etenik izan eta zapalkuntza heteropatriarkalaren adierazpen bortitzena izaten jarraitzen dute. Ikaran hezi gaituzte emakumeok\*, gertatuko zaigunaren beldur etengabe, eta izua gailendu zaigu askotan. **Aitzitik, izu-ikara ez da izan geldiarazle eta bortizkeriari aurre egiteko lanean jarraitu dugu, geroz eta hesi zabalagoa jarritz askotariko eraso matxistei.**

**Norabide horretan, dardara berri bat sortu nahi dugu, gure herrietan hedatzen joango diren indarkeria matxistei aurre egiteko uhinak zabaltzeko, dar-dar.** Urte luzez egin ditugun esku-hartze, arreta, sensibilizazio jarduerak eta erantzunak inarrosi eta urrats berri bat eman nahi dugu Emaginetik indarkeria matxistari gabeko herriak ehuntzen jarraitzeko. Horretarako, trebakuntza eta ardura hartze kolektiboa oinarrian dituen proposamen bat osatu dugu eta horren berri jasotzen da dokumentu honetan.

**Jaietan ematen diren indarkeria matxisten inguruko lanketa modu integral batean lantzeko proposamena osatu dugu** Emaginetik. Horretarako, udalek egiten dutenaz gain, ikuspegi komunitarioa ere barne hartu dugu, herriko eragile guztien inplikazioa sustatzeko. Haatik, indarkeria matxistei aurre egiteko Herri Akordio zabala osatzea dago proposamenaren muinean, modu horretan, jardun bateratua bermatu eta askotariko eremuetan konpromisoak erdietsi nahi ditugulako.

**Herriko eragile, subjektu eta orotariko herritarrek sensibilizatzea eta konpromisoak biltzea du helburu.** Abiapuntuan, sensibilizazio eta formakuntzan sakonduko da, udalerriko espazio eta eremu estrategikoetan eragin eta eremu bakoitzean hartuko diren konpromisoak eta esku-hartzea zehazteko segidan. Indarkeriaren egiturazko izaera aitortu eta horri aurre egiteko bidean eremuz eremukako lanketa egingo da. **Komunitatea osatzen duten eragileengana joko da, herriko eragile aktiboak saretu eta indarke-**

**ria matxistei aurre egiteko ehun indartsua osatzeko.** Bakoitzak bere errealitatetik eta antolatzen dituen ekintzen bidez gorputzuko da askotariko eragileen artean (herritarrek, erakundeak, elkar-teak, ehun ekonomikoa...) lortzen den konpromiso edo hitzarmen kolektiboa.

Horiek horrela, Herri Akordioa ez da intentzio adierazpen soila, **konpromiso errealak, neurgarriak eta ebaluagarriak jasoko dituen hitzarmen kolektibo bat baizik, gure herriak, indarkeria matxistari gabe eraikitzen jarraitzeko.**



DAR-DAR

# EREMUAK

- » UDALA
- » JAI ETA TXOSNA BATZORDEAK
- » MUGIMENDU FEMINISTA
- » HERRIKO ELKARTEAK ETA ERAGILE SOZIALAK
- » HEZKUNTZA ERAGILEAK
- » KIROL ERAGILEAK (POLIKIROLDEGIA, KLUBAK, ELKARTEAK...)
- » KULTUR ERAGILEAK (KULTUR ELKARTEAK, ARTISTAK, ARTISAUAK...)
- » GAZTE MUGIMENDUA ETA GAZTETXEA
- » AISIALDI TALDEAK
- » MERKATARIEN ETA OSTALARIEN ELKARTEAK
- » ...

# FORMAZIOA

Indarkeria Matxistarik gabeko jaiak sortzeko bidean eragileek sentsibilizazio eta formazioak jasotzea proposatzen dugu. Herri Akordio honek indarkeria matxistaren aurkako erantzun komunitarioa eraiki nahi du, eragile bakoitza bere eremutik inplikatur.

**Sentsibilizazioa eta formakuntza ezinbesteko tresnak dira espazio seguruak, berdinzaleak eta indarkeriarik gabekoak sortzeko, eta horien bidez eragile guztien konpromisoak zehaztu nahi ditugu.**

**DAR-  
DAR**

# FORMAZIOA



## UDAL TEKNIKARI ETA POLITIKARIAK

- **Indarkeria matxistari buruzko formakuntza saio praktikoak** (kontzeptuak, eraso motak, prebentzioa, nola esku-hartu)
- **Jai parekideen inguruko lanketa:** egitarauaren analisisa, espazio seguruen oinarriak, parte hartze parekide eta inklusiboa, lanen banaketa, estereotipoen lanketa, espazio publikoaren erabilera...
- **Protokolo bateratu baten lanketa:** eraso baten aurrean nola jokatu



## JAI BATZORDEA, TXOSNA BATZORDEA ETA MUGIMENDU FEMINISTA

**Helburua:** Jai giroan indarkeria matxista prebenitzea eta erantzun argiak adostea.

### PROPOSAMENAK:

- Indarkeria matxistari buruzko **formakuntza saio praktikoak jaietako antolatzaileentzat** (kontzeptuak, eraso motak, prebentzioa, nola esku-hartu)
- **Jai parekideen inguruko lanketa:** egitarauaren analisisa, espazio seguruen oinarriak, parte hartze parekide eta inklusiboa, lanen banaketa, estereotipoen lanketa, espazio publikoaren erabilera...
- **Protokolo bateratu baten lanketa:** eraso baten aurrean nola jokatu.
- **Puntu moreen antolaketa eta dinamizazioa,** txosna eta jai guneetan.
- Jaietan, ikuspegi feminista duen **komunikaziorako oinarriak.**

# FORMAZIOA



## MERKATARITZA ETA OSTALARITZA ELKARTEAK

- **Indarkeria matxistari buruzko formakuntza saio praktikoak** jaie-tako antolatzaileentzat (kontzeptuak, eraso motak, prebentzioa, nola esku-hartu).
- **Jai parekideen inguruko lanketa:** egitarauaren analisia, espazio se-guruen oinarriak, parte hartze parekide eta inklusiboa, lanen banake-ta, estereotipoen lanketa, espazio publikoaren erabilera...
- **Protokolo bateratu baten lanketa:** eraso baten aurrean nola jokatu



## ERAGILE SOZIALAK (ELKARTEAK, SINDIKATUAK, GURASO ELKARTEAK, ETAB.)

**Helburua:** Indarkeria matxistaren aurkako ardura kolektiboa sustatzea.

### PROPOSAMENAK:

- Eragileentzako oinarrizko formakuntza saioak: indarkeria matxista-ren adierazpenak, mitoak eta eragileen rola.

### Indarkeria matxista prebenitzeko konpromisoak:

- Erreferente feminista izendatzea elkarte bakoitzean.
- Barne-funtzionamenduan txertatzeko jarrera-kodeak edo printzi-pioak adostea.
- Kanpora begirako ekimenetan nola txertatu indarkeria matxistari aurre egiteko konpromisoa.

# FORMAZIOA



## HEZKUNTZA ERAGILEAK (IKASTETXEAK, GURASOAK, IRAKASLEAK)

**Helburua:** Berdintasunean eta indarkeriarik gabeko harremanetan heztea.

### PROPOSAMENAK:

- **Ikasleentzako tailer egokituak** adinaren arabera: emozioak, harreman osasuntsuak, mugak, sexu hezkuntza, kontsentimentua
- **Irakasleentzako formakuntza espezifikoak:** indarkeria matxistaren detekzioa eta esku-hartzea.
- **Gurasoentzako sentsibilizazio saioak**, etxetik ere prebentzioa lantzeko.
- **Ikastetxeen barruan** protokolo argiak ezagutzea eta zabaltzea.

## KIROL ERAGILEAK: POLIKIROLDEGIA, KLUBAK, ELKARTEAK

**Helburua:** Kirola espazio seguru eta berdinzalea izatea.

### PROPOSAMENAK:

- **Entrenatzaile eta zuzendarientzako formakuntza saioak:** boterea, autoritatea eta indarkeria matxista kirolean.
- **Kirolarientzako sentsibilizazio tailerrak**, bereziki nerabe eta gazteekin.
- Jarrera sexistak eta indarkeria jasotzen dituzten **egoerak identifikatzeko tresnak**.
- **Kirol instalazioetan mezu argiak eta ikusgarriak jartzea** (tolerantzia zero).

# FORMAZIOA



## KULTURA ERAGILEAK (KULTUR ELKARTEAK, EKITALDIAK, SORTZAILEAK)

**Helburua:** Kulturak indarkeria matxistaren aurkako diskurtsoak zabaltzea eta aliatuak izatea.

### PROPOSAMENAK:

- Kultura-eragileentzako sentsibilizazio saioak, programazioetan genero-ikuspegia txertatzeko.
- Indarkeria matxistaren inguruko hitzaldiak, antzezlanak, erakusketak edo zine-forumak.
- Emakume sortzaileen eta diskurtso feministen ikusgarritasuna handitzea.



## GAZTE MUGIMENDUA ETA GAZTETXEA

**Helburua:** Gazteen artean indarkeria matxistaren aurkako jarrera aktiboak sustatzea.

### PROPOSAMENAK:

- Gazteentzako tailer parte-hartzaileak: harreman afektibo-sexualak, maskulinitateak, kontsentimendua.
- Aisialdia eta droga kontsumoen arteko harremanetan sakontzea. Droga kontsumoa genero begirada batetik lantzea, eta erasoak eta kontsumoen arteko lotura kritikoki aztertzea.
- Gaztetxe eta espazio autogestionatuetan protokolo propioak lantzea.
- Jai eta kontzertuetan autobabesa eta zaintza kolektiboa lantzeko dinamikak.
- Indarkeria matxista arlo digitalean

# KOMUNIKAZIO EUSKARRIAK

Indarkeria matxistaren kontrako lanketa integrala izan dadin, ahalik eta jende gehienarengana iritsi nahiko genuke, horretarako komunikazio lana ezinbestekoa izanik.

**Emaginek diseinu grafiko eta komunikazio zerbitzua ere eskaintzen du eta ikuspegi feministatik sortutako diseinuak eta indarkeria matxistan adituak diren teknikariekin koordinazioan sortutako edukiak garatzen ditugu.**

# KOMUNIKAZIO EUSKARRIAK

Euskarri komunikatibo hauek sortzea proposatu nahi dugu, beti ere guztiak estilo/irudi/lelo berdinak lagunduta:

Aurretik garatutako beste diseinu batzuk ikusteko, webguneko bi atal hauetan topatu ditzakezue:

- <https://www.emagin.eus/komunikazioa/>
- <https://www.emagin.eus/project/jaiak-komunikazio-euskarriak/>

- » **ETXEZ ETXE BANATZEKO ESKU ORRI INFORMATIBOAK**
- » **BALIABIDEEN GIDAK**
- » **IKASTETXEAK ETA HEZKUNTZA INFORMALEKO ZEIN AISIALDI GUNEETARA ZUZENDUTAKO ESKU ORRIAK**
- » **KARTELA + LELOA + IRUDIA JAIEN AURRETIK ETA JAIETAN ZEHAR ZABALTZEKO**
- » **KARTELAREN EGOKITZAPENAK SARE SOZIALETARAKO**
- » **PEGATINAK**
- » ...

# KOORDINAZIOA

Proposatzen dugun lanketa zehaztu, adostu eta koordinatzeko, oinarritzko hiru bilera aurre ikusten ditugu:

- hasierako bilera beharrak aztertu eta proposamena egokitzeko
- hautazko jarraipen bilera bat
- eta balorazio bilera bat.

Beharren arabera bilera kopurua handitu ahal izango da.

# TOKIAN TOKI

Herri bakoitzera egokitutako proposamena landuko dugu eta tokian tokiko beharren zein lehentasunen arabera estrategia bat zehaztuko dugu.

# EKIPOA



**MADDALEN ADURIZ**  
Kudeatzailea - Hernani  
1988



**ARAITZ AMATRIA**  
Diseinatzailea - Iruñea  
1982



**MAIDER QUERY AVARISTO**  
Formatzailea - Ordizia  
1993



**AINARA LASA**  
Formatzailea - Ataun  
1984



**AITANA MINER**  
Formatzailea - Hernani  
1998



INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO  
HERRIAK EHUNTZEN



[emagin@emagin.eus](mailto:emagin@emagin.eus)

**(+34) 943 59 09 02**

[www.emagin.eus](http://www.emagin.eus)